



Nolako erreakzioak izan ohi dituzte biktimek inpaktua jaso eta berehala?

Arestian adierazi dugunez, gertaera traumatiko batetik onik irteten diren biktimek inpaktu emozional handia eragiten duen bizi-esperientzia esanguratsu bat jasan dute. Inpaktu hori eragiten duen gertaera inoiz ez du espero pertsona batek, ez baita ohiko giza esperientzia bat. Gertaera ustekabekoa, indarkeriazkoa eta/edo masiboa izateak gaititu egiten du pertsona batek eraginkortasunez erantzuteko duen ahalmena, eta beldurra, larritasuna eta beste erreakzio batzuk agertzen dira. Hori dela-eta, dagoen oreka hauts dezaketen gertaerak direla esaten da: gertaera traumatogenikoak.

Gertaera traumatogeniko bat “intentsitate handiko gertaera negatibo bat da; bat-batean sortzen da, ezustekoa eta kontrolaezina da, eta, aurre egiteko gauza ez den pertsona baten osotasun fisikoa edo psikologikoa arriskuan jartzen duenez gero, ondorio dramatikoak ditu biktimek (beldurra eta babesik eza, bereziki)”.

Bat-batean eta ezustean sortu den eta jasaten duen pertsonarentzat ondorio dramatikoak izan ditzakeen intentsitate handiko gertaera baten aurrean, gizakiaren organismoak axolagabetasun-egoera utzi eta alertarik handieneko egoera batean geratzen da. Aldaketa horren ondorioz, baliabide fisiologikoak erabiltzen dira mehatxu-egoerari (hots, estres-erreakzioari edo estres-erantzunari) erantzuteko.

Erreakzio fisiologikoaren ondorioz, esku hartzen duten profesionalak erraz ikusteko moduko aldaketa fisikoak eta psikologikoak gertatzen dira biktimengan. Ondoren, erreakzio fisiologiko hori zertan datzan azalduko dugu. Era horretan, hobeto ulertuko dugu nola sortzen diren gertaera horien biktimen portaerak, eta lehen esku-hartze psikologikoa eraginkortasunez egiteko prestatuko gara.